

IKASLEEN TXOKOA 93. ZENBAKIA

# Hernani BHI

DBH 3-4

**Egileak:***Goikoak: Ainhoa Lopez, Xare Hernandez, Nahia Nabarro, Amaieur Velez, Ekhiñe Gurrutxaga eta Olaia Arsuaga**Behekoak: Joana Tolaretxipi, Maialen Azurmendi eta Uxue Zugasti*

# Aldaketek itxaroterik ez

Azken bizpahiru urteotan hainbat eragile feminista sortu dira Hernani BHI Institutuko ikasleen artean.

Lehenik, Matxialto taldea sortu zen 2019-2020 ikasturtean. Aurten, beste bi talde berri sortu dira; alde batetik, Jauzi, bigarren batxilergoko ikasleek sortua, eta bestetik, 3.DBH-n hezkidetzatalde bat. Taldeon ikusgarritasuna eta lana ezagutzera emateko elkarrizketa bat egitea aukera bikaina dela iruditu zait. Hona hemen taldeotako kide batzuen hitzak.

MATXISALTO, Lucia Fernandez

## Nolatan sortu zenuten taldea?

3. mailan geundela, Harremonak hezkidetzat egitasmoaren ikastaroa egin ondoren, aukera eman zitzaigun ikasle guztioi kanpo lanketa zein barne lanketa egiteko. Hasiera batean hainbat ikasle bildu ginen talde bat sortzeko intentzioz. Orduan oraindik talde irekia zen, baita gaia ere. Gerora, zenbait pertsona bildu ginen, oso gogotsu, eta hasiera batean gure artean barne lanketa egiten hasi ginen, gehienbat feminismitik, eta hala, bertatik sortu zen Matxialto.

## Zein behar zela-eta sortu zen? Edo zein behar ikusten zenuten?

Batik bat, Parekidek utzitako hutsune hori bete nahi izan genuen. Alabaina, behar-beharrezkoa ikusten dugu talde eragile feminista bat egotea institutuan, sentsibilizatorako ekintzak, moskeo kanpainak, *performance*-ak eta beste egiten dituenak. Bereberki, presentzia hutsagatik, eta aldaketa txikietatik ematen direlako aldaketa handiak.

## Nola deskribatuko zenuke Matxialto?

Nire ustetan, esango nuke Matxialto talde feminista bat dela, bere martxan doana, jendeari berdintasunaren alde kontzientziatu nahian. Lan asko dugun arren hori lortzeko, lehen esan bezala, gauza txikietatik ematen dira aldaketa handiak, hortaz, geratzen zaizkigun bi urteetan ez dugu amore emateko asmorik, pandemia garai gogor honetan etsi ez dugun bezala, oso zaila izan den arren konfinamenduan harremanetan jarraitzea eta gure iraultza txiki honekin aurrera egitea.



LGTBIQ+ fobiaren aurkako Nazioarteko Egunean egindako kontzentrazioa.

JAUZI, Aitor Iriarte

## Nolatan sortu Jauzi?

Hasieran bi lagun arteko gauza izan zen. Pentsatu genuen oso interesgarria izango zela eskolan LGTBIQ+ kolektiboaren inguruko zerbaitek egitea eta lagun batengana jo genuen laguntza eske. Denborarekin 7 bildu gara. Gure azken urtea denez ikastetxean, ilusioa egiten zigun gai honen inguruan hausnartzea, ikastetxearen egoera aztertzea, gauzak antolatzea eta abar... eta nolabait urrats bat ematea hurrengo belaunaldiek gaia indartzen segi dezaten.

## Zein behar edo helbururekin?

Hasierako helburua, aipatu moduan, eskolako egoera aztertzea eta nolabait gure arrastoa uztea zen. Eta azkenean, helburu garrantzitsuenetako bat ere gure artean elkarri babesa ematea izan da, lagun arteko taldea iza-

teak hortan asko lagundu baitu.

## Nola deskribatuko zenuke Jauzi?

Espazio bat institutu mailan non kolektibo barruan bakarrik sentitzen diren ikasleei babesa ematen zaien, edo behintzat hori da gure helburua.

HEZKIDETZA, Goiatz Arabiotorre eta Enara Ayerbe

## Nola sortu zenuten taldea?

Guk hasiera batetik jada, bagekien gure adinean matxismo handia zela (entzundako komentarioengatik, momentu batzuetan izandako jarrerengatik...) eta proposatu zutenean hezkidetzatik talde bat egiteko, proposamen horri heldu genion, batik bat matxismo egoera hau aldatzeko.

## Zein behar edo helbururekin?

Geure helburua beti izan da,

pixkanaka, ikasturtean zehar antzematen goazen matxismoa kideei ikustaraztea, gutxitzea eta jendeari feminismoaren berri ematea, elkarren artean ahalik eta erosoan eta libreen egon ahal izateko. Baina LGTBIQ+ komunitatearen inguruko hainbat kartel eta argazki jarri ondoren jasotako erantzun homofobia ikusita, konturatu gara homofobia izugarria dagoela gure artean eta, hortaz, lanketa handi baten beharra dugula. Gauzak hala, orain helburutzat hartzen ari gara baita ere LGTBIQ+ kolektiboaren inguruko lanketa txiki bat egitea alor hori hobetzeko.

## Nola deskribatuko zenukete zuen taldea?

Gure taldea definitzeko modu ona iruditzen zaigu esatea oso gogotsu gaudela. Inguruko matxismoaz ohartzen gara eta beste berau ikustarazteko gogo handia dugu.

# Ezaguna dirudien gai ezezaguna

Azken hilabete hauetan 4.DBHko ikasleok transexualitatea lantzen ibili gara.

Gaia hainbat modutara jorratu dugu, baina guztiaren iturri nagusia Kattalin Minerren *Moio: gordetzea ezinezkoa zen* liburua izan da. Bertan, hernaniar gazte transexual baten suizidioari eta honen inguruko bizipenei buruzko hausnarketa bat egiten du Kattalinekin.

Liburua bost elkarrizketen eta Kattalinen beraren hausnarketez dago osatua. Elkarrizketak oso leku ezberdinetatik bizi izan zuten Moioaren gertakaria, eta horrek are aberasgarriagoa egiten du. Askok ikasten den liburua horietako bat iruditu zaigu; izan ere, benetako errealitate bat kontatzen du, eta horrek gai bat lantzerako orduan ongi kokatzen eta hobeto ikusten laguntzen du. Bestalde, Kattalin Minerren idazteko modu arina

eta naturala aipatzekoa da.

Apirilaren 28an Kattalin Miner bera etorri zitzaigun hitzaldi bat ematera institutura. Kattalinekin *Moio* liburua idatzi zuen Tene Mujika saria irabazi ondoren. Bertan, berak eta guk gertu dugun gai polemikoak erakusten dizkigu, beste elkarrizketekin batera. Arrazoi nagusia, bere oroitzapenak memoria sozial batean gorde izan beharrean indibidual batean gordetzea kondenatuak izan zirela izan zen. Hitzaldian sartuta, liburua erreferentzia gisa hartuta, inguruko beste gai batzuez aritu ginen; transexualitatearen egungo egoerak, bere elkarrizketak... Gaiari buruz zituen sentimenduak ere erakutsi zizkigun, bai lagun gisa, bai hernaniar gisa, eta bai kazetariaren ikuspuntu

kritikotik. Gurekin hain irekia izan zenez, bazirudien betidanik ezagutzen gintuela, nahiz eta inoiz elkar ezagutu ez genuen. Hitzaldian Ekai Lersundi Martinez ondarrutarraren kasuaz ere hitz egin genuen. Kasu honi ere liburuan erreferentzia egiten zaio eta.

Kattalinen hitzaldiaz gain, Loratuz Lotu taldeko Mash eta Brayan etorri zitzaizkigun Institutura transexualitateaz hitz egitera. Ez ohiko zerbaitek izan zen, klaseetan normalean ez baitugu horrelako gaiez hitz egiten. Hala ere, oso hitzaldi baliagarria egin zitzaigun, eta guztiok transexualitatearen gaineko beste jakintza batekin atera ginela iruditu zitzaigun. Hasieran, kontzeptu ezberdinak azaldu zizkiguten gure parte hartzearekin, eta ondoren, beraien bizipen eta prozesuak azaldu zizkiguten. Proiektu honen, gaia gure ahotan jarri eta hobeto ulertzen lagundu digu.



Kattalin Miner apirilaren 28an Moio liburua aurkezten DBH 4. mailan

Moioaren kasura itzuliz, hark mutila zela esan zuenean, ia inork ez zekien zer zen transexualitatea. Horrek egoera zaildu egingo zuen, erreferenterik izan gabe ezin baita jakin benetan nola egin behar den. Orain, 14 urte beranduago, transexualitate gure gizarteak barneratuago duen gai bat dela esan dezakegu. Oraindik asko geratzen da benetan tabu bat izateari uzteko, eta trans diren pertsonen be-

raien trantsizioa arazorik gabe eta ahalik eta azkarren egin, eta beraien buru eta gorputzekin gustura geratu ahal izateko. Hortaz, esan dezakegu oraindik lana badagoela egiteko, eta guztion ardura da prozesu hauek erraztu eta normalizatzea.

**Egileak:**  
Xare Hernandez, Ainhoa Lopez eta Joana Tolaretxipi.  
DBH 4ko ikasleak

# Hernaniko DBH Covid garaian

2021eko maitzaren 6an, Santa Barbarako ikasle eta irakasleei elkarrizketa bat egin genien. Bertan, Covid 19ak Hernaniko institutuan izan duen eraginaz hitz egiten dugu.

Irakasleei eginiko galderak honako hauek izan ziren; zer iruditzen zaizkizu ikastetxeak hartutako neurriak Covid-arekiko? Zuk zer aldatu, gehitu edo kenduko zenuke? Nola ikusten duzu egoera urtebete barru? Uste duzu koronabirusak ikasketetan eragin txarrak edo larriak ekarri ditzakeela? Beste urteetan baino prestakuntza gutxiago edo gehiago izango dugula uste duzu? Zer diozu aurtengo selektibitateari buruz?

## Zer iruditzen zaizkizu ikastetxeak hartutako neurriak Covid-arekiko?

Nahiko zaila da neurri batzuk errespetatzea, ikastetxe mailan aplikatzea zaila iruditzen zait. Alde batetik, motz geratzen direla pentsatzen dut, baina ikastetxe mailan dagoen covid tasa dela eta, ondo goazela esango nuke.

Beste batek dio «Nik arau gehiago jarriko nituzke, baina ikasleek errespetatzea oso zaila izango da».

## Zuk zer aldatu, gehitu edo kenduko zenuke?

«Nik klasearen ratioa jaitsiko nuke (ikasle kopurua), irakasle

kopurua gehitu, hezkuntzak jarritako baliabideak handitu...» Guzti honi gehitu nahi izan diote Covid denboraldian nahiz ohiko denboraldian arbel digitalak ez dutela bere zerbitzua ondo betetzen, arbel berriak edo konponduak eskatzen dituzte.

## Nola ikusten duzu egoera urtebete barru?

«Bi urte barru espero dut normalitatera bueltatuko garela baina urtebete barru antzeko ikusten dut egoera. Suposatzen da gehiengoak txertatzen hobeto egongo garela, baina uste dut oraindik urtebete falta dela» diote institutuko irakasleek.

## Uste duzu koronabirusak ikasketetan eragin txarrak edo larriak ekarri ditzakeela? Beste urteetan baino prestakuntza gutxiago edo gehiago izango dugula uste duzu?

«Ez, baina iruditzen zait, agian, antsietate puntu bat sortu dezakeela. Egoera normala ez denez, ekarri dezakeen txarrena iruditzen zait antsietatea dela.

Nik uste nahiko ondo igaror dela kurtsoa. Egia da niri ez zaidala etxean egotea tokatu



DBH 3. mailako Harrobi eraikina

eta etxean egon diren askori zailagoa egin zaiela. Irakasleak ere antsietate puntu bat eduki dugu, gehienbat hasieran, egoera berrira ohitzeko orduan; konfinatutakoak kontrolatu, arbel digitalarekin arazoak...»

## Zer diozu aurtengo selektibitateari buruz?

«Presio handia dute, orain hirugarren ebaluazioa gainean dutela eta selektibitate datak ere gainean dituztela jakinarazi digute. Sortu zaien ziurgabetasun hori zaila da. Eta baita konfinatuta egotearen beldurrak ere tentsio handia sortu du ikasleengan. Ez dakite azterketak egin ahal izango dituzten». Oso urduri daudela adierazi digute irakasleek.

*Ikasleei ere galderak egin dizkiegu, honako hauek izan dira erantzunak:*

## Irakasleak ondo moldatzen dira ordenagailuekin norbait konfinatua dagoenean?

Ikasle gehienak adierazi digute irakasleek ez dakitela nola egin irakasle ondo egoteko, baita ere erran digute irakasle askok kurtsoaren bat edo egin beharra daukatela. Oso gaizki moldatzen direlako ordenagailuekin. Beste ikasle batek esan digu ikasle batzuk etxean konfinatzen direnean irakasleak ez dutela bideo dei ez mezurik bidaltzen. Baita esan digute badaudela irakasle asko oso ondo moldatzen direnak ordenagailuarekin eta asko dakitenak gaiarekiko.

## Asko konfinatu dituzte urtea hasi denetik, nola moldatu zara zu etxetik klaseak egiten?

Ikasle batzuk esan digute asko konfinatu dituztela urte erdia baino gehiago, eta beste batzuk behin edo inoiz ere ez. Batzuk

oso gaizki egon dira ez zeuka-telako ordenagailurik, ez internet... eta beste batzuk oso ondo ibili dira, baina ia denak ikastetxean egotea nahiago dute.

## Zer da zailen egiten zaizuna?

Ikasle askok esan digute zailena soinketa egitea izan dela; beste batek entzumen arazo handiak eduki dituela (audifonoak ditu), eta beste asko hain burbuja txikia edukitzea.

## Non sumatzen duzu aldaketa gehiena beste urteetako eta aurtengo egoerarekiko?

Beste ikaskideengana ez gerturatzea, arauak, konfinamenduak... Baina gehienbat maskara.

## Egileak:

**Olaia Arsuaga, Naroa Arrozpide eta Ekhiñe Gurrutxaga**

# Smash World Tour 2021

Smash World Tour-aren iragarkiaren ondoren, COVID-19arengatik Super Smash Bros-eko aurrez aurreko txapelketa guztiak bertan behera geratu ziren.

Ezinezkoa da noiz bueltatuko diren aurrez aurreko txapelketak jakitea. Smash World Tour 2020a indargabetu egin zen, baina 2021ean posible izango da sarearen bitartez egitea. Noski, ez da berdina izango, baina bada zerbaite. Aldaketa gehiago egin behar izango dituzte, baina posible izatea lortu dute azkenean.

Nor izango da munduko

Smasharen jokalaria hoberena?

Oraingoan, lehenengo lehian egin dira. 5 kontinenteetako (Ipar Amerika, Hego Amerika, Ozeania, Asia eta Europako) jokalaria hoberenak klasifikatuta daude, eta Twitchen bitartez transmititu da txapelketa.

Lehenengo hirukotearen emaitzak atera dira, eta hauek izan dira irabazleak:

ORAINGO IRABAZLE ZAGUNENAK		
SPARGO	(MEXIKO)	
KINAJI	(AUSTRALIA)	
CAPITANCITO	(DOMINIKAR ERREPUBLIKA)	
BR1 AV	(EKUATOREA)	
BLOOM4EVA	(UK)	
KEN	(JAPONIA)	
XIFL	(HONG KONG)	
SCEND	(AEB)	
3 IRABAZLE FALTA DIRA ORAINDIK		

- 1 vs 1eko borroka  
- 3 bizitza, 7 minutu  
- Final Smash Meter itzalita  
- 3 partida irabazten dituen lehenengoak irabaziko du  
- Objektu gabe  
- Agertoki lehiakorrekin (Hazards itzalita).

- Online.

- Pertsonaiak libre

Informazio gehiagorako, PDF hau sortu dute informazio guztiarekin:

<https://smashworldtour.com/wp-content/uploads/2021/02/SWT-2021-Rulebook-2020.2.16.pdf>

2021eko formatu hibridoa eskualde bidez blokeatutako sareko sailkapenek osatzen dute, baita eskualde mailako aurrez aurreko finalek ere, mundu osoan zehar.

Ultimate-rako, eskualdeko sareko blokeatuek zehaztuko dute nor pasatuko den eskualdeko finalera.

Melee-rentzat, mundu osoko eskualdeen ordezkari diren komunitateko talde-buru batek eskualde mailako finalistak hautatuko ditu 2020 eta 2021eko txapelketen emaitzen arabera.

2021. urtean eskala handiko

gertaerarik itzuliko den baieztatu ezin duten arren, pozik daude aldi baterako itzulerarekin. 2022ra arte itxaron behar da jatorrizko formatura itzultzeko, baina aurrez aurreko geraleku bakoitzean komunitateko gertaerak nabarmenduko ditugu.

Super Smash Bros Bandai Namco Entertainmenten bideo-joko bat da. Munduan gehien saldu diren frankizien artean dago Super Smash Bros. Saileko joko hau Nintendoen frankizia askoren borrokalarien crossover bat da.

Txapelketa honetan ez da Super Smash Bros Ultimate (Nintendo Switcherako) jokatzen, baizik eta Super Smash Bros Melee (Nintendo Game Cuberako).

Artikulu honetan Super Smash Bros Ultimateko informazioa dago bakarrik.

# Poesia txokoa

Ikasturte honetan,  
poesian barrena  
murgildu gara 4.  
DBHko ikasleok.

Bertan, zuhaitz bat bezala, Gabriel Arestiren sutraietatik jaio, eta liburu eta ikustaldien ba-

rrena hazi gara. Txoko honetan, amaierako zuhaitza ikusiko duzue, guk egindako olerkiekin eta gure ingurukoek egindakoekin.

Jarraian poesia batzuk irakurriko dituzue, Uxue Zugasti 4. DBH-ko ikaskidearena, Garazi Urdangarin Batxilergoko ikaslearena, eta Oihane Garmendia irakaslearena.

**Egileak:**

**Uxue Zugasti Rodriguez,  
Maialen Azurmendi Mujika eta  
Nahia Nabarro Oiartzabal, 4.  
DBHko ikasleak**

*Zure buruan galduta bazaude  
pozik, alai eta kantuka,  
baina esnatzen bazaituzte  
beraiek ezingo dute uka  
haserre baldin bazaude  
hasiko duzula burruka.*

*Baina lasai egon  
zuk duzulako bazuka  
eta zuk irabaziko duzula.  
Ondorioz ibiliko zara zabuka.  
Gero sutara gerturatuko zara  
haren amaieran duela muka.  
Eta hau ondo amaitzeko,  
edango duzula zuk sabuca.  
Badakit ezerk ez duela zentzua,  
ni nagoelako orain buruan kantuka.  
Eta kontuz esnatzen banauzue,  
istorio honek ez duelako inoiz izango buka.*

**Uxue Zugasti Rodriguez**

*Kable batean izkutuan  
enara bat adi adi  
kabi eder bat osatzeko  
adaxkak biltzen da ari.  
Denbora luzez aurre eginez  
Afrika aldean hotzari  
Euskal Herrian dira berriz  
eguzki printzen gidari,  
goizeko brisaren doinuan  
somatu ditut kantari  
ongi etorria eman ez  
pozez udaberriari.*

**Garazi Urdangarin Larred**



Egilea: Uxue Zugasti Rodriguez



Egilea: Uxue Zugasti Rodriguez



Egilea: Uxue Zugasti Rodriguez



Egilea: Uxue Zugasti Rodriguez

*Nora hoa, artzai?  
Oraindik udaberria ez da amai  
eta hi baho txakurra bakar konpain  
ardiak izanen dituk hire andregai  
eta eguzkia gidagai.*

*Nora hoa, artzai  
hain bakarti baina alai?  
Setemeran itzul hadi  
inoiz baino indartsuago eta salburik  
hemen nagok-eta ni, hire etorreraren zai.*

**Oihane Garmendia Glaria**

*Oihu egin nahi dut, baina ezin dut.  
Malkoak atera nahi ditut, baina ezin dut.  
Egia esan nahi dut, baina ezin dut.  
Galdu dut. Ezin dut. Eta inorri ez zaio inporta.  
Galduta nago. Ezin dut. Bakarrik nago.  
Hilda nago, baina bihotzak jarraitzen duenez, nik ere egin behar dut.*

**Uxue Zugasti Rodriguez**